

KONTROL MOZIOA

MARTUTENE BARKAIZTEGIREKIN LOTZEKO

TRENBIDE GAINEKO OINEZKOEN PASABIDEARI BURUZKOA

Juan Carlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko otsailaren 17an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko maiatzean itxi zen Martutene Pasabidetik Barkaiztegira doan errepidea, ADIFek trenaren pasagunean egin behar dituen obrak direla eta. Udaletxearekin sinatutako hitzarmenak lehen fase bat jasotzen zuen behin-behineko soluzioa planteatuz sortzen zen trafikoa-arazoari, eta bigarren fasea bi urtetako epean behin betiko soluzioa nolakoa izango zen zehazten zuena.

Orduz geroztik, trafiko arazotik haratago oinezkoentzako arazo larria sortu da Barkaiztegi eta Martutene arteko lotura oso luzea eta arriskutsua baita. Ibilgailuekin partekatu behar dute errepide eskas bat, ez espaloi eta ezta argirik ere ez duena eta, gainera, buelta oso handia egin behar dutena. Hau gutxi balitz, arazoari bertan bizi diren herritar asko adinekoak direla gehitzen zaio.

2021eko azaroan Udal Gobernuak pasabide bat egitea onartu zuen trenbide gainean arazo honi irtenbidea emateko. Alkatearen hitzetan “urte bete eta zerbaitetan” egina egongo zen pasabide hau. Gaur da eguna oraindik pasabidearen berririk ez daukaguna.

Egoera honen aurrean bertako auzotarrek bere kezka adierazi digute behin eta berriz, eta arazoa Udaletxeko ordezkarietara eta publikoki salatu izan dute, baina ez da konponbiderik eman.

Gune Publikoetako Batzordean ez dela aurreikusten oinezkoentzako trenbide gaineko pasabiderik egitea esan ziguten, ez behintzat ADIFek trenaren pasagunean egin behar duen obra egin arte, eta hau ez da 2026a baino lehenago hasiko.

Bertan bizi diren auzotarrei bi lan hauek modu independentean egingo zirela esan zitzairen, eta 2022rako oinezkoen pasabidea egina egongo zela. Beste obra, pasabidearena, beranduago egingo zela.

Urgentziatzko gaia dela deritzogu, ez baita onargarria Barkaiztegitik Martutenera joateko 30 minutuko ibilbidea egin behar izatea bide arriskutsu batetik.

Gainera, publikoki 2021ean pasabide hau urtebeteko epean egingo zela agindu zitzaien.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2021ean agindu zitzaien bezala, hasi daitezela berehala trenbide gaineko oinezkoen pasabidea egiten Barkaiztegi eta Martutene artekoa.

Donostian, 2025eko otsailaren 21ean



Juan Karlos Izaguirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea

